

Euskal museoetako ateak erdi zabalik

Guggenheimek eta Txillida Lekuk dituzte sarrera garestienak; Arabako Arte Ederretako Museoa eta Artium beste muturrean daude

Erresuma Batuko museo publikoak doan dira, erakusketa berezi batzuk salbuespen izan badaitezke ere, eta Europako hiri askotan gero eta ohikoagoa da sarrera ordaindu beharrik ez den garaia zabaltzea. Joera horri segika, Frantziako Gobernuak erabaki du 25 urtetik beherakoek eta irakasleek museoetako sarrerak libre izatea. Apirilaren 4an jarri zen erabaki hori indarrean. Espainian, berriz, arte ederretako museoak lautik bat dira doakoak, Consumer Eroskik egin duen azterketa baten arabera.

Euskal Herrian, bisita orduak eta eskaintzak zabaldu dituzte museo gehienek Aste Santuko oporraldiei begira. Prezioetan, ordea, ez da aldaketarik izaten horrelako garai berezietan. Dena den, batetik bestera gero eta alde handiagoa nabaritzen da sarrera erosterakoan.

Bilboko Guggenheim museoa da garestiena, eta 2009. urtean sarreraren prezioa igo duen bakarra. 13 euro balio du -audio gida barne- eta ikasle eta erretiratuei ematen die murrizpenak egiteko aukera.

Donostiako Txillida Leku ere gertu dago: 8,5 eurokoa da sarrera, baina 3,5 gehiago ordaindu behar da audio gida hartuz gero.

Beste aldean dago Arabako Arte Ederretako Museoa, Euskal Herriko museo nagusien artean doakoa den bakarra. Gasteizko Artium museoak, berriz, nabarmen merkatu du sarrera prezioa aurten abiatu duen Zuk erabaki egitasmoaren bidez. Bisitariak nahi duena ordaintzen du irteeran, 0,01 eurotik hasita (orain arte 4,5 eurokoa zen sarrera).

Hona hemen Euskal Herriko beste museo batzuetako egungo tarifak. Bilboko Arte Eder museoak 5,5 euro (bi euro gehiago audio gidarekin); Bilboko Itsas Museoak 5,5 euro (euro bat gehiago audio gidarekin); Baionako Euskal Museoak eta Bonnat museoak 5,5 euro (hileko lehen igandean doakoa da Bonnat); 4 euro Jorge Oteiza museoak; eta 2 euro Nafarroako Museoak. Ikasle eta erretiratuentzat guztiek dituzte prezio merkeagoak.

Bisitariak gutxitzen

Aipatu diren museoan artean gehienek galdu dituzte bisitariak. Arlo horretan ere Guggenheim museoa nabarmentzen da. 2007an baino 51.594 sarrera gutxiago saldu zituen 2008an (1.002.963tik 951.369ra jaitsi du, %5), Consumer Eroskik eginiko azterketaren arabera. Gehien igo dutenen

artean dago, bestalde, Bilboko Arte Eder museoa da: 164.000 bisitari izan zituen 2007an, eta 223.000 iaz, %35 gehiago. Oteiza museoak 9.420 sarrera gehiago saldu zituen, eta 42.000ra iritsi zen, eta Artiumek 4.900 gehiago, 104.000 bisitarira iritsiz. Jende gutxien jasotzen dutenen artean dago Arabako Arte Ederretakoa, 13.443 bisitari, nahiz eta kopuruari eusten dion.

Frantzian eztabaida

Azken urteetan eztabaidarako arrazoi da Frantzian museo publikoetako sarrera. UMP alderdiak doakotasuna agindu zuen hauteskunde kanpainan; baina 150 eta 200 milioi euro arteko gastua ekarriko lioke horrek Gobernuari, eta Nicolas Sarkozy presidenteak urtearen hasieran iragarri zuen neurria 25 urtetik azpikoentzat izango zela. Doakotasunak ez du museoa hilko, aitzitik, museoetara joateko ohitura hartzen duten gazteek gauza bera egingo dute heldutan, esan zuen. Joan den astetik aukera hori badute Frantziako 6,5 milioi gaztek, baita turistek eta kanpoko ikasleek ere, baina erakusketa iraunkorretan bakarrik.

P. Agirre.